

# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA SAILA

### 367

*EBAZPENA, 2019ko azaroaren 22koa, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariarena. Honen bidez, unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako guraso-elkarteen federazioentzako eta konfederazioentzako laguntzak ematen dira.*

Hezkuntzako sailburuaren 2019ko ekainaren 12ko Aginduak egindako deialdian ezarritakoari jarraituz, eta izapidetu diren espedienteak aztertu ondoren, hau

#### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.— Arlo edo lurralde eremuak kontuan hartuz ebazpen honen eranskinean zehazten diren laguntzak ematea ikasleen guraso-elkarteen federazio eta konfederazioei, 2019. urtean egingo diren ekintzak finantzatzeko.

2. artikulua.— Dirulaguntzen lehen ordainketa elkarte bakoitzari dagokion dirulaguntzaren % 75ekoa izango da. Ordainketa aldeztu aurretik egingo da, eta betiere dirulaguntza onartu ondoren, deialdiaren aginduko 14.c) artikuluan jasotzen den bezala. Gainontzeko % 25a ordainduko da «egindako gastuaren justifikazioa» delako inprimaki normalizatua, behar bezala beteta, eta ordura arte izandako gastuen faktura eta ordainagiriak aurkezten direnean.

#### AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal diote interesdunek Hezkuntzako sailburuordeari, hilabeteko epean, jakinarazpen elektronikoa egin eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 22a.

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria,  
LUCÍA TORREALDAY BERRUECO.

## ERANSKINA

## Konfederazioak

Lurraldea	Erakundearen izena	Guztira (euro)
Bizkaia	Ehige	70.000

## Lurralde historikoetako federazioak

Lurraldea	Erakundearen izena	Guztira (euro)
Araba/Álava	Denon eskola	48.228,00
Gipuzkoa	Baikara	57.003,00
Bizkaia	Bige	64.769,00

## Beste federazio batzuk

Lurraldea	Erakundearen izena	Guztira (euro)
Araba/Álava	FAPACNE	12.288,00
Araba/Álava	EGIAMPA	3.888,00
Bizkaia	FECAPP	33.628,00
Bizkaia	BIGEF	14.389,00
Bizkaia	GIDARI	4.524,00
Bizkaia	FAPAE	6.120,00
Gipuzkoa	FEGUIAPA	14.072,00
Gipuzkoa	GIGEF	21.091,00